

Arriatsun ingurugiro zentroa jartzeko biabilitate plana egin du Artelatz enpresak

■ Proposatzen duen zentroak 3 ardatz ditu: 1) Ikasleentzako ingurugiro programa, 2) 'Tokiko Agenda 21' plana eta 3) Naturaren inguruko ekintzak bultzatzea ■ Plana asteazkenean aurkeztu zuten Hezkuntza Batzordean.

UDALETXEKO Hezkuntza Saila Arriatsun Ingurugiro zentroa jartzekotan da. Aurtengo aurrekontuan 240.405 euroko (40 milioi pta) diru partida bat onartu da proiektu hori finantzatzeko. Udalak eskatuta, Artelatz enpresak ingurugiro zentro posible horren bideragarritasun plana egin du eta asteazkenean Hezkuntza Batzordean aurkeztu zuen.

Zentro dinamizatzailea

Artelatz Ingurugiro Zerbitzuetako enpresak proposatu du Arriatsuko izatea Hernaniko ingurugiro gaitako zentro-motorra. Ingurugiro zentro horrek hiru hanka izango ditu. Batetik, ikastetxei zuzendutako urte osoko programa eskainiko luke; natur-gaiak lantzeko bidea izango da.

Bestetik, Tokiko Agenda 21 plana (desarrolloa eta natur errekurtsoen arteko oreka bilatzen duena) zabaltzen eta gauzatzen lagunduko luke.

Eta azkenik proposatzen dute Arriatsuko zentroa herrian naturaren inguruan egiten diren ekintzen (Zuhaitz Eguna, Sagar Eguna...) bultzatzaile eta inizatiba berrien sortzaile izatea.



Artelatzen ustez, Arriatsuko eskola zaharrean Albergea jartzeak koplikazio asko ditu.

Artelatzen adierazi zenez, Gipuzkoan dauden ingurugiro zentroak ikastetxeentzako programa eskaintzen dute. Arriatsuko zentruak planteatu osoa du, eta hala egite ezker Gipuzkoako zentro bakarrenetakoa izango da.

Hernanik aukera haundia
Artelatzen bideragarritasun planak dio ingurugiroarekin

lotutako gaitan Hernanik potentzial pedagogiko haundia duela. Batetik, hor dago Urumea erria eta horrek herriko historian izan duen garrantzia. Bestalde, Hernanik historiaurrea eta historia oso aberatsa ditu. Gaur egunean, berriaz, bai nekazaritzak, baina, batez ere sagarraren munduak aparteko garrantzia du Hernanin.

Eskola zaharra mantendu
Arriatsuko eskola zaharra kanpotik bere horretan geldituko da. Obra gehiena barruan egingo da. Osiñaga auzoak bere lekua izango du hor, eta bere urteko martxak lehen bezala jarrituko luke.

Hezkuntza Batzordea Artelatzen egindako bidegarritasun plana aztertu eta eztaba-datzekotan gelditu zen. □

HERNANI INSTITUTUA

Ikastetxea ezagutzeko aukera asteazkenean

HERNANI Institutuak atek zabali izango ditu etzi, ikastetxea ezagutu nahi duten guztientzat. Arduradunek instalazioak erakutsi eta bertan egiten duten lanaren berri emango diete hurbiltzen direnei. Karmelo Labakan Batxilergo Teknologikoa eta ziklo industrialak (Mekanika eta Elektrizitate-Elektronika) eta Agustin Iturriagan, Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa, Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergo eta zerbitzuetako zikloak (Ostalari-tza-Turismoa eta Gizarte Kultur Animazioa). Interesatuak Institutu edo EPORA azaldu, etzi, arratsaldeko 18:30etan. □

TXIRRITA IKASTOLA

Eskola Txikien festan lan egiteko jendea behar da

EKAINAREN 9an Eskola Txikien Festa egingo dute Ereñotzun. Jende mogimentu haundia izango da eta antolatzaileek 100 bat boluntario behar dituzte lanean laguntzeko. Prest daudenak Ereñotzuko Irrintzi edo Txilibita tabernetan apuntatu litezke edo 943 555965 telefonora deitu (Idoia), gaueko 20:00etatik 22:00etara. Maiatzaren 31a baino lehen. □

BERRIAK ELKARTEA

'Berriak Txartela'z hitz egiteko bilera

BERRIAK Elkarteak Berriak Txartela kaleratzera dioa eta bihar bilera dute horren inguruan. Bazkide guztiei dei egin zaie azaltzeko. Bihar, asteartea, arratsaldeko 15:00etan Sandiusterrin. □



Kantuzeko abeslariak Tangokako eszena batean.

Tangoka, 'bis'

ASTEAZKEN honetan Tangoka ikuskizuna gozatzeko aukerarik izango dute, orain arte sarrera gabe gelditu direnek. Lau emanaldi eman dituzte Tangokakoek eta denetan Biteri leporaino bete da. Jendeak hala eskatuta beste emanaldi bat ematea erabaki dute azkenean, aurreko astean sarrerarik gabe gelditu direnentzat. Etzi asteazkena, 20:00etan Biterin. □

HERNANI BIDAIK
Urbieta etorb. 6 - HERNANI
☎: 943 33 00 49 - 33 01 74
e-mail: hernanib@teletel.es
Hernanitik munduko leku guztietara iristen lagunduko dizugu.

OINDI
taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

GESTORIA
ZULAIKA
ASESORIA
Kardaberaz 68 - Tel. 943 55 14 94 - 55 19 12 - Faxe 943 55 11 30

■ ESKUBALOIA -GIPUZKOAKO KOPA

Hernanik estu hartu zuen Bera-Bera, baina eskuetatik alde egin zion Kopak

HERNANIK 17-13 galdu zuen larunbatean Bera Beraren kontra, Bidebietan. Gipuzkoako Kopa zegoen jokoan eta bi taldeek partidu gogorra jokatu zuten. Hernani 0-5 aurreratu zen markagailuan, baina, partiduak aurrera egin ahala Bera-Berakoen jokuan erori ziren hernaniarrak eta partiduak eskuetatik alde egin zien. Arbitroak ere izan zuen eragina Bera-Berakoen mesederako, jokaldi gogorretan hernaniarren kontra arbitratu baitzuten normalean. Bera-Bera Hernani baina kategoria altuagoan dago ligan, baina, larunbatean apenas nabaritu zen. □

■ IGERIKETA

Asteazken eta ostegunean egingo dira igeriketa taldean sartzeko probak

IGERIKETA taldean sartu nahi duten gaztetxoek datorren asteazken eta ostegunean egin behar dituzte probak, 18:30etatik 19:30etara. Frogen helburua da igerilarien maila ezagutzera. Dauden plazak baino jende gehiago aurkezten bada egingo dira aukeraketak; gainontzean aurkezten diren guztiak hartuko dituzte. Ekipoan lan egiteko metodoa igeriketa ekipoak orain arte erabili duena da, baina, aldatuko dena txapelketa kopurua: hilero txapelketa batean parte hartuko dute igerilariak. Interesatuak izena, jaioteguna eta telefonoa apuntatu eta igeriketako entrenatzaileari eman lehenbailehen. □



Dantzariak aureskua dantzatzen, atzoko omenaldian. Aurrean Javi Perez Vacasen familia.

Jabi Perez Vacas zenari omenaldi hunkigarria egin zioten atzo Zubipen. CD Hernanik, koadrilak, Portu auzoak eta Kirol Patronatuak eskainitako oroigarriak jaso zituzten atzo Javi Perez Vacasen senitartekoei, Zubipen egindako omenaldian. Omenaldia Gorengo mailako taldeak ligako azken partidua jokatu aurretik egin zioten. Hernanik 1-3 galdu zuen Ordiziarekin. □

■ WATERPOLOA

Hernani Euskadiko Kopan eliminatua

HERNANIKO waterpolo taldeak partidu zaila zuen Gasteizen, Menditxo taldearen kontra. Lesioak eta lana medio jokalaria asko joan gabe gelditu ziren eta partiduan nabarmendu zen hori. Menditxok 8-4 hartu zuen menpean Hernaniko taldea. □

■ GIMNASIA -ESTATUKO TXAPELKETA-

Jaione Tejedor 2garren konjuntoka

GAZTEEN estatuko txapelketan 2garren gelditu da Jaione Tejedor, Ipurua taldearekin. Irabazle Aragoiko taldea izan da, bigarren Ipurua eta hirugarren Valentziako taldea. Orokorren 3garren egin du Euskadik. □

KIROLA - EMAITZAK-

FUTBOLA	Taldeak
Gorengoak	Hernani-Ordizia
Gazt. Ohor.	Aldapetarrak 2-Hernani 3
Kadet. 2.a	Hernani 2-Hondarribia 0
WATERPOLOA	
Euska. Kopa	Menditxo 8-Hernani A 4
ESKUBALOIA	
Gip. Kopa	Hernani 13-Bera Bera 17
PELOTA	
Herri Arteko Txapelketa	
Kadeteak	Arrieta-Gorrotzategi 22/Lizartza 12
Jubenilak	Alvarez-Yubero 22/Lizartza 12
Afizionat.	Erroizena-Mendizabal 22/Lizartza 10



Zure laguntza behar dugu:

- Egunero Kronika dohain jaso ahal izateko.
- Egunean 3.000 ale banatzera iritsi ahal izateko.
- Kronika astean 6 egunetan kaleratu ahal izateko.

Urtean 30 euroren truke, egin zaituz laguntzaile.

- Kioskoetan dauden bonoak bete eta bertan utzi.
- Doberatik pasa (Nagusia 6) edo deitu 943 33 27 99ra.
- Interneten www.hkronika.com helbidean.



■ HITZ BITAN

✓ PELOTA -HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Hernanik 3 partiduak irabazi dizkio Lizartzari. Inork uste baino errazago hartu zuen menpean Hernanik Lizartza, joan den larunbatean. Kadete eta jubenetan 22-12 irabazi zuten eta afizionatuetan 22-10. Bueltako partiduak, datorren ostiralean, 21:30etan Hernaniko kiroldegian.

✓ MUSA

Xalapartan final-laurdenetan. Xalaparta eta Sta Barbara Elkartean eta Aralar tabernan mus txapelketak aurrera dijoaz. Aste honetako partidak:

XALAPARTA ELKARTEA		ARALAR TABERNA	
Maiatzak 28, asteartea		Maiatzak 28, asteartea	
Txema-Goyo	Juan-Jesus / Justo-Javi	Isidro-Kristina	Pittu - Jacin
Martin-Gofi	Iñaki-Ignacio	Garmend-Garmend	Loli-Fran
Maiatzak 29, asteazkena		Maiatzak 29, asteazkena	
Julio-Jesus	Gorrotza-Jesus	Villar-Josetxo	Manolo-Jesus
Erdozia-Goikoetxea	Martin-Iñaki	Maiatzak 30, osteguna	
STA BARBARA ELKARTEA		Iñaki-Jose Ramon	Txema-Manolo
Maiatzak 30, osteguna		Koldo-Pablo	Pako-Ketxus
Eixente-Fernando	Mauri-Alejandro	Ramon-Esteban	Pedro-Martin
Manu-Josetxo	Peñag.-Jose M.	Javi-Txomin	Miguel-Joseba
Jose Leon-Julio II	Erdozia-Antonio	Maiatzak 30, osteguna	
Carlos-Ceci	Javi Mateos-Rafa	Juanma-Andoni	Jose Mari-Angel
ARALAR TABERNA		Petto-Greñas	Fernando-Eixente
Maiatzak 27, astelehena		Axier-Jokin	Txema-Pelek
Josetxo-Pablo	Egoitz-Iñaki	Patxi-Julian	Ramon-Gavi
Joxe - Kije	Felix-Jesus		
Inaxio-Joseba	PP-PP		
Julio-Antonio	Beloki-Andres		

✓ IPUI KONTALARIAK

Umeentzako ipuiak bihar Biterin. Lur Korta ipui kontalaria izango dugu bihar, asteartea Udal Liburutegian. Umeentzako ipuiak kontatuko ditu. Bi sesio izango dira: arratsaldeko 17:30etan 3-4 urteko umeentzat eta 18:00etan 5-7 urtekoentzat.

✓ MENDIRIZ MENDI ELKARTEA

Eskalada ikastaroa ekainaren 1 eta 2an. Mendiriz Mendi elkarteak eskalada ikastaroa antolatu du. Interesa dutenekin bilera egingo dute, ikastaroaren berri emateko. Datorren ostiralean, (maiatzak 31), 20:00etan Mendiriz Mendiko bulegoan. Ikastaroren prezioa 6 euro da eta *katu hankak* norberak eraman behar ditu.

✓ SANTA BARBARA ELKARTEA

Tanborradan parte hartzeko bilera, gaur. San Joanetan Sta Barbara elkarteak tanborradan parte hartu nahi duena elkartera azaldu, gaur 18:30etan. Uniformeak eduki eta parte hartuko ez dutenek uniformeak uztea estimatuko lukete elkartearen.

✓ UDALEKUAK

Begirale zerrenda osatzeko izen ematea zabalik. Uztaileko udalekuan begirale izateko izen ematea zabalik dago. Lehengo urtetik badago begirale zerrenda, baina, bajak betetzeko beste zerrenda hau egingo dute. Izen emateko Udaletxean, maiatzak 31 bitarte, goizeko 09:00etatik 13:00ak arte. Informazio gehiago 943 337029. □

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40 Ixiar Erasunekin, AEKn antolatu dituzten ekitaldiei buruz 12:00 Emakumearen zentruak egindako erakusketaren inguruan 12:20 Nekazaritza ekologikoa, Hasier Baztarrikarekin.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ☎ Taxiak: 943 550093
- ☎ Udaltzaingoa: 943 333288
- ☎ DYA: 943 464622
- ☎ Anbulatorioa: 943 006666
- ☎ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ☎ Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077
- ☎ Gaez: Urbistondo Lasarte. S Francisco 1B ☎ 943 366567
- ☎ ASTEARTEA
- ☎ Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087

- ☎ Gaez: Iturralde Usurbil. Poligono 13, 9 ☎ 943 363395

☎ ASTEAZKENA

- ☎ Egunez: Bilbao-Sagast Urbieta 7 ☎ 943 552941
- ☎ Gaez: Oa Usurbil. Poligono 1, 1 ☎ 943 376076

ETXEAK ETA LOKALAK

REI REI INMOBILIARIA

Ispezua 1 -Tel: 943 33 61 61
ASTIGARRAGA-ERGOTIA: Eraikuntza berria, 2003an entregatuko dira. Kontsulta eta erreserbak gure bulegoan.
HERNANI: Lastaola, baserrian, pisua kapritxora egokitua, 2 gela, saloia, 12 m2ko komona jakuziarekin. garaje itxia. Terrenoa. 38.000.000 pta.
HERNANI: "La Tienda" taberna alokatzen da. Lanean hasteko moduan prestatuta. Informazio pertsonala 652 776220.
HERNANI: Karabel. Ezin hobeto. 25.750.000 pta.

INMO f3 INMOBILIARIA

Kardaberaz 49 -Tel: 943 33 60 66
Apartamentua: Zentrikoa. 42.000 euro.
Latsunbe berri: Sukaldea, saloia, 3 gela, 2 komon eta trasteroa. **Berria bezela.**
Lokala: Egokitua. 90 m2. **Oso Komertziala.**
URNIETA: Sukaldea, saloia, 2 gela, komona eta trasteroa. **Oso egoera onean.**